

OSAKIDETZAREN II. EUSKARA PLANAREN TARTEKO EBALUAZIOA EGINDA, DAGOENKO HASI DIRA EBALUAZIO-TXOSTENAK AURKEZTEN

2013-2019rako Euskara Planean jasozten denez, Osakidetzak bi ebaluazio egin behar ditu Planaren helburuen eta neurrien betetze-maila jakiteko: lehenengoa, hirugarren urtea igarotakoan, eta bigarrena, plangintzaldi osoa amaitutakoan.

Horrela, lehen hiru urteak igarota, 2017an Euskara Planaren lehenengo ebaluazioari ekin zaio erakundez erakunde. Prozesua maitatzen abiatu zen, eta hainbat erakunderen ebaluazio-txostena osatu ahala, haien aurkezpenak egiten hasi dira jada. Lehenengo aurkezpenak Donostialdeko eta Ezkerrialdea-Enkarterri-Gurutzetako ESletan izan dira, irailaren 29an, eta gaine-

rako erakundeetan ondorengo asteetan egitekoak dira, irailetik azarora bitartean.

Lehenik, aurkezpena ESI bakoitzaren arduraduneri egingo zaie: zuzendaritzetako ordezkariari eta Euskara Planean estrategikoak diren arloetako arduradun eta teknikariari. Eta ondoren, ESI bakoitzaren esku geratuko da aurkezpen zabalagoa nola egin.

Ebaluazio-prozesuaz Osakidetza Euskara Zerbitzu Korporatiboa arduratu da, eta langintza horretan Elhuyar Aholkularitza enpresaren laguntza teknikoa izan du.

Ebaluaziorako, bi eratako datuak edo informazioa jaso dira: informazio kuan-

titatiboa (ebidentziak, behaketa zuzena, telefono-deiak...) eta informazio kualitatiboa (elkarrizketak unitate bazuetakoko buru eta profesionalekin, talde fokalak hainbat kategoriatako enplegatuekin, inkestak paziente euskalduneri...).

Ebaluazioak Euskara Planaren bost arloak ditu aztergai: Irudia eta komunikazioa, Kanpo-harremanak, Barne-harremanak, Hizkuntza-kudeaketa, eta Hizkuntza-eskakizunak, lehenetsunak eta derrigortasun-datak. Arlo horietan egoera zertan den erakustez gain, zer alderditan hobetu behar den azalduko digu batik bat, betiere Planean ezarritako helburuak betetzeko xedez.

KIROLAREN ONUREI ETA ARRISKUEI BURUZKO HITZALDIA BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETAREN ATARIAN

Osasuna eta euskara uztartzeko ahaleginean ari da aspalditxoan Donostialdea ESIa, eta, saiatze horretan ezin gelditurik, hitzaldi interesgarria antolatu du beste eragile batzuekin batera Bidasoa eta Urumea lotu ohi dituen lasterketa izen handikoaren harira: «Kirolaren onurak eta arriskuak, gaur egungo medikuntza-ezagutza». Hitzaldia urriaren 6an izango da, ostirala, arratsaldeko 7etan, Donostiako San Telmo museoa.

Ondo prestatuta joaten al gara lasterketara? Nola eragiten dute lasterketa-eguneko baldintzek errendimenduan eta kirolarien fisiologian? Zer diote ikerketek, hemen eta nazioartean? Hain zuzen ere, horretaz arituko da Felix Zubia Donostia Unibertsitate Ospitaleko medikua, Iñigo Etxeberria Behobia-Donostia



lasterketaren koordinatzailearen saiohasierako hitzak entzun ondoren. Bukatzeko, mahai-ingurua ere izango da, Arritxu Iribar Euskadi Irratiko esatariak gidatuta, eta bertan hartuko dute parte Uxue Fraile mendi-korrikalariak eta Aran-

txa Errazkin Bidasoko ESiko mediku eta kirolariak, aipatutako Etxeberria eta Zubiarekin batera.

Ekitaldi hau, esan bezala, Donostialdea ES-laren, Donostiako Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Bagera Donostiako Euskaltzaleen elkartearen eta Urrats euskaltegiaren elkarlanaren emaitza da, edo, hobeto esanda, emaitzetako bat. Izan ere, orain lauzpabost urte, bost eragileok praktika-komunitateko taldea osatu zuten beren esparru geografikoan euskararen erabilera sustatzeko asmoz, eta, harrezkero, duten ezagutza partekatuz, esku-hartze batzuk gauzatu dituzte. Horietako batez (*Ezagutzatik erabilerara*) aritu gara arestian [Osatuberrin](#), 20-21 orrialdeetan.

AMURRIKO OSASUN-ZENTRO BERRIA AMURRIO, AIARA, ARTZINIEGA ETA URDUÑAKO BIZTANLEENTZAT

Eraikin berria oso modernoa da eta behin betiko erantzuna emango die egungo beharrei. Bertan 34 profesionalak egingo dute lan, bost eremu hauetan: Bezeroen arretarako eremua, Helduen lehen mai-

lako arreta, Emakumearen eremua, Pediatria, eta Etengabeko arreta-gunea.

Solairu bakarreko eraikina da, aurrekoa baino funtzionalagoa. Hesitutako partzela batean dago eta lorategia

dauka. Bestalde, irisgarritasunari garrantzi berezia eman zaio, mugikortasun mugatuko pertsonen beharretara egokituz, eta energia-eraginkortasuneko sistemak instalatu dira.

caroline vézina

Société Santé en français (SSF) erakundeko programen zuzendaria

«Pazienteek arreta zein hizkuntzatan jaso behar duten jakitea funtsezkoa da»

Kanada herrialde plurala da: bostetik batek jatorri atzerritarra izateaz gain, indigenak zein frankofonoak gutxiengo dira. Caroline Vézina Kanadako gizarte-langile bat da, eta osasun-zerbitzuetan ekitatea bermatzearen alde jardun du beti. Kanadako frantses-hiztunek osasun-arreta frantsesez jaso ahal izatea da SSFren helburua, eta 2010etik aurrera dihardu bertako zuzendaritzan.

Osasun-arreta nork bere hizkuntzan jasotzeak nolako garrantzia du?

Hizkuntza-mugek osasun-arretaren kalitatea eta segurtasuna kaltetzen dute. Pazienteak kezka edo sintomak ondo adierazi ezin baditu, diagnostikoa okerra izan daiteke; eta osasun-arloko profesionalak esaten dutena pazienteak gaizki ulertzen badu, arazoak sortzen dira. Frogen arabera, arrisku handiena dutenak tokiko hizkuntza nagusia ondo maneiatzen ez dutenak dira. Buruko osasunaren arloan ere hizkuntza-adierazle erabakigarria da, askotan lan-tresna bakarra komunikazioa baita.

Kanadako komunitate frankofo-noak osasun-arreta frantsesez jasotzen al du?

Quebecen frantses-hiztunak dira nagusi, eta bertan bai; baina gu gainerako probintzia guztietan ari gara lanean, bertan 1,2 milioi frantses-hiztun eta akadiar daudelako gutxiengo-egoran. Herritar horien artean gero eta gehiagok arreta frantsesez jasotzea da orain arteko gure lorpen handiena, eta

baita etorkizunerako erronka nagusia ere. Estimazioen arabera, jada frantses-hiztunen erdiek jasotzen dute arreta frantsesez.

Zerk oztopatzen du osasungintzan nor bere hizkuntzan artatzea?

Osasun-sistema barruan, batzuek garestia dela uste dute, eta beste batzuek ez dute uste hizkuntzak osasun-arloko tratamenduetan eraginik duenik; baina ikerketen arabera, pazienteak bere hizkuntzan ez artatzeak ondorio txarrak dakartza: zerbitzuen erabilera handitzen da, kostu ekonomikoak ere bai, eta pazienteen osasunean kalteak eragin daitezke.

Gainera, frantses-hiztun askok ez dute osasun-guneetan beren hizkuntza erakusten. Kanadan osasun-arreta sistematikoki ingelesez ematen da, eta uste dute, arreta frantsesez jasotzea eskatuz gero, denbora luzeagoz itxaron beharko dutela edo osasun-langileak ez direla frantsesez ondo aritzeko gai izango.

Kanadako sistemak arazoak ditu populazioaren hizkuntza-profila identifikatzeko; eta pazienteak arreta zein



hizkuntzatan jaso behar duen jakitea funtsezkoa da osasungintzako eskaintza egokia egiteko eta giza baliabideak kudeatzeko.

SSF 2002an sortu zenetik aurrera, arazo horiei aurre egiteko neurriak garatu dituzue. Zer estrategia gomendatuko zenuke?

Hamabost urteotan lankidetzaren eredu sendoa eratu dugu. Osasun-sistema konplexua denez, osasungintzako, erabaki-guneetako, akademiako, kudeaketako eta komunitateko kideen inplikazioa behar da. Arlo bakoitzaren barruan liderrak beharrezkoak dira, eta osasun-arreta eskaintzeko erantzukizuna osasun-sistema publikoarena da, baina aldaketa antolaketak eta elkarlanak dakarte. 500 eragile baino gehiago dira SSFko bazkide, tartean frantsesezko bi mediku-eskola eta bederatzi



prestakuntza-gune. Horiek guztiak saretea izan da helburuak lortzeko estrategia erabakigarriena.

Hamasei sare ditugu Kanadan, eta probintzia guztietan sare bat dago guxtienez. Sareak tokiko profesionalak, erabiltzaileak eta bestelako eragileak lotzen dituzten egiturak dira. Gainera, estatu-mailan koordinatuta gaude: guztiontzat balio duten material eta ikastaroak ditugu, eta urteroko konferentzietan 400 pertsonatik gora elkar-tzen gara.

Zer beste egitasmo eraginkor bultzatu duzue?

Ez dugu Kanadako herritar guztiak elebidunak izatea espero. Beraz, eskaintza aktiboa bultzatu dugu: frantsesezko eskaintza duten osasun-zerbitzuek hori jakinarazten dute, erabiltzaileek aukera dagoela jakin dezaten; frantses-hiztuna

ez den osasun-langile batek ere lankide frankofono batengana bidal ditzake erabiltzaileak.

Horrez gain, ikastaro eta materialak eskaintzen ditugu; adibidez, osasunkudeatzaileek profesional elebidunen garrantzia ezagutu eta haien jardunean txerta ditzaten. Ospitaleetan guneak antolatu ditugu medikuen arteko *mentoring*erako eta elkarriketarako, pazienteak frantsesez artatzeko konfiantza har dezaten. Tresnen eraginkortasuna neurtzeko, frantses-hiztunen arretaren bilakaera ere neurtzen dugu.

Kanadan probintziek dute osasun-zerbitzuen eskumena. Nola eragiten du zuen lanean?

Osasun-sistema komunitatetik gertuago dago eta aldaketak azkarrago betearaz daitezke, baina onak diren jakintza, funtzionamendu-eredu eta prakti-

kak zabaltzea zailagoa da. Gure helburua bakarra den arren, hainbat errealitate eta mailatan eragiten dugu.

Erakunde-mailan, probintzia bakoitzak bere lege, plan eta protokoloak egiten ditu, eta probintzia gehienetan frantses-hiztunen osasun-arretan hobekuntza esanguratsuak lortu dira azken urteetan. Estatu-mailako erakundeak garenez, probintzia arteko koordinazioa ere egiten dugu. Tokiko mailan, osasun-zentroetan profesional elebidunak elkartzen ari gara, bertan erabiltzaile frankofonoak artatzeko.

2028rako helburuak finkatu dituzue. Zer berrikuntza ari zarete jorratzen xedea lortzeko?

Lantzen ari garen tresna berrietako bat erabiltzaileak sistema osoan frantsesez artatzeko estandar zehatza da. Beste berrikuntza bat izango da erakunde batek frantsesez arreta eskaintzeko duen gaitasuna adierazi eta bermatu-ko duten ziurtagiria. Buruko osasunaren arloan ere proiektu bat abiaraziko dugu. Frantsesez eskaintzen diren osasun-zerbitzuen mapa zehatza ere egin nahi dugu. Eta eskualde arteko eta nazioarteko ezagutza trukeekin ere jarraituko dugu.

Azken horri lotuta, Bilbon egindako Osasuna eta Hizkuntza EHUren udako ikastaroan egon zinen. Zer ondorio atera duzu jardunaldi-etik?

Euskal Herrian, Galesen eta Kanadan antzeko errealitateak ditugu hizkuntza gutxituetan osasun-arreta jasotzearen harira. Esperientziak, ikerketak eta tresnak elkarrekin trukatzeko inspiratzen eta gure lorpenak indartzen laguntzen digu. Horregatik, etorkizuneko kolaboratzen jarraitu behar dugu. Galestarrek *More Than Just Words* estrategian egitasmo interesgarri asko dituzte, eta ia erakundea sortu zuten. Osakidetza erabiltzaileek beren lehenetazko hizkuntza jasota utzi dezakete, eta horrelako tresna erabilgarriak behar ditugu.

gramatika

HIZKUNTZA-BALIABIDEAK

Hitz bat euskaraz nola esan ez dakizula? Esaldi bihurri bat euskaratu eta egokia ote den zalantzan zaudela? Ez estutu, badira-eta Interneten ataka horretatik ateratzen lagundu diezazuket baliabideak.

Horietako batzuek galdera egiteko aukera eskaintzen dizute (*Dudanet, Jagonet, Euskara tekniko*); beste baliabide batzuetan, berriz, aurretik argitaratutako zalantzak edo egindako galderei emandako erantzunak aurkituko dituzu (*Zalantzen txokoa, Irale-ren galde-erantzunen datu-basea*). Hona, hurrenez hurren, horiei buruzko azalpen laburra:

DUDANET

Kontsulta-zerbitzu bat da, IVAPeK herritarrei eta erakundeei doan eskaintzen diena, Internet bidez. Dudanet zerbitzuak hizkuntza-zalantzak argitzea du helburu, eta administrazio- eta lege-arloko hizkerarekin eta terminologiarekin lotutako galderei erantzuten die.

DUDANETek galdera-erantzunen datu-base zabala dauka dagoeneko; beraz, orain arte bildutako informazioa kontsultatu nahi izanez gero, *DUDANETen bilatu* atalean sakatu besterik ez duzu. Atal horretan zuk nahi duzun informazioa aurkitzen ez baduzu, DUDANETen erregistratu behar duzu galdera egin ahal izateko.

JAGONET

Jagonet Interneten bidez euskararen erabilera zuzena eta egokia eragiteko zerbitzua da, Euskaltzaindiak herritarren eskura jartzen duen kontsulta-zerbitzu informatikoa, eta bi helburu nagusi ditu: batetik, herritarrak zerbitzatzeari, eta bestetik, gure hizkuntzaren kalitatea bermatzea. Zerbitzua erabiltzekotan, begiratu webgunean bertan ea zure galderari lehendik erantzun ote zaion.

EUSKARA TEKNIKOA

Elhuyar Fundazioaren Zientzia.eus webguneak eskaintzen duen zerbitzu bat da, zientziaren eta teknologiaren arloko hizkuntza-kontsultak egiteko.

ZALANTZEN TXOKOA

UPV/EHUren Euskara Institutuak eskaintzen duen baliabideetako bat da, Sareko Euskal Gramatikaren ataletako bat. Bertan, zalantza askori emandako erantzunak aurkituko dituzu.

IRALE-REN GALDE-ERANTZUNEN DATU-BASEA

EAEko ikastetxeetako irakasleentzako euskarazko prestakuntza-zerbitzua da IRALE. Haien webguneko Kontsulta-zerbitzuaren atal bat da aipagai dugun galde-erantzunen datu-basea.



Azkenik, -agian, lehenik aipatzekoa zena- **OSABAR** dugu, euskaraz lan egiteko tresna, Osakidetzako euskara- eta informatika-zerbitzuek aurrean abian ipini duten lanabesa -oraingoz E-Osabide aplikazioan bakarrik-.

Funtsean itzulpen-biltegi bat da Osabar. Erabiltzaileari Osakidetzako itzulpen-memorian bildutako esaldietan bilaketa egiteko aukera eskaintzen dio, eta, horrez gain, zalantzak eta iradokizunak bidaltzeko leiho bat ere bai.

agenda

IV. BERDINTASUNERAKO JARDUNALDIA: «OSASUN MENTALA ETA GENERO-INDARKERIA».

Urriaren 6an, Barakaldon, Gurutzeta Unibertsitate Ospitaleko areto nagusian.

[informazioa](#)

OSAGAIZ OSASUN-ZIENTZIEN ALDIZKARIRAKO EKARPENEN EPEA ZABALIK.

Aldizkariaren 2. zenbakirako artikulua aurkezteko epea zabalik dago urriaren 15 arte.

edozer zalantzarako: info@osagaiz.eus

GIPUZKOAKO ERIZAINZTA PEDIATRIKOKO XII. JARDUNALDIA

Urriaren 26an, Donostian, Amara Plaza hotelean.

[informazioa](#)

PNEUMOLOGIAKO III. JARDUNALDIA LEHEN MAILAKO ARRETAN

Urriaren 28an, Gasteizen, Ciudad de Vitoria hotelean.

[egitaraua](#)

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIATZATZEKO 2017KO BIGARREN DEIALDIA

Aurreikusita dagoenez, idatzizko probak azaroaren 4an egingo dira, Barakaldon (BEC), eta ahozkoak abenduaren erdi aldean.

[informazioa intranetean](#)

AHO-HORTZEN OSASUNAREN I. NAZIOARTEKO JARDUNALDIK (4. EDIZIOA)

Azaroaren 17an, Mendaroko ospitaleko areto nagusian. Hizkuntzak: gaztelania eta ingelesez.

[egitaraua](#)

EAEKO ARRETA INTEGRATUKO JARDUNBIDE ONEN IV. JARDUNALDIA: «JARDUNBIDE ONAK BATZUENAK DIRA; HORIEK ZABALTZEKO LANAK, DENENAK».

Azaroaren 23an, Gasteizko Europa Biltzar Jauregian. Proiektuak eta ideiak aurkezteko epea [urriaren 9an](#) amaituko da.

[informazioa](#)



GUSTUKO DUDANA EGITEA ERABAKI DUT,
OSASUNERAKO ONA BAITA.

VOLTAIRE

